

39 EUSKAL HERRIKO EREINTZA ESKULANGINTZA AZOKA

Artiola Artisautzaren Gunea

SARRERA



39. EUSKAL HERRIKO EREINTZA ESKULANGINTZA AZOKA

FERIA DE ARTESANÍA
EREINTZA DEL PAÍS VASCO

FOIRE D'ARTISANAT
EREINTZA DU PAYS BASQUE

2017 _____

URRIAK
20 - 21 - 22

OCTUBRE

MERKATUZAR ERAIKINA
ERREENTERIA

Antolatzailea / Organiza



Balantseak / Patrocinadores



Erretereriako "Ereintza" Euskal Herriko 39. Artisautza Azoka 2017ko urriaren 20ean, 21ean eta 22an ospatu zen Merkatuzar Kultur Guneko "Jose Luis Caso" aretoan. Azokaren ordutegia aurreko urtetan bezalakoa izan zen: 11:00etatik 14:00etara, goizez, eta 16:30etik 20:30era, arratsaldez, euro 1-eko sarreraren prezioarekin helduentzat.

Azokaren antolatzailea Artiola Artisautzaren Gunea izan da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Erretereriako Udalaren eta Kutxa Fundazioaren babesarekin.

39. edizio honen partehartzaileak Euskal Herriko txoko guztietakoak ziren. Guztira 35 tailerrek erakutsi zituzten beren produktuak, gehienak gipuzkoarrak eta gainerakoak, Bizkaikoak, Arabakoak, Nafarroakoak eta Iparraldekoak, eta osagarri bezala Estatuko beste toki batzuetakoek ere parte hartu zutelarik.

Ohiko dataren aldaketa izan da seguru aski bisitarien gutxitze arin baten zergatia. Hala ere, bi mila inguruko pertsonak bisitatu zuten Azoka, eginiko aldaketa estetikoak eta artisauek erakutsi zituzten produktuen kalitatea nabarmen goraiatu zutelarik.



Artikulu honetan edizio honen datu esanguratsuenak aipatzen saiatuko gara.

IRUDI BERRI BAT

Aldaketek beti dakarte ordura arte lortutako erosotasuna galtzea. Baina aldaketak, hain zuzen ere, etengabeak izan dira Azokaren 38 urteko bilakaeran, eta haren indargune izan dira, gainera. Zentzu honetan Azokak, Euskal Herriko artisautzaren hazkuntza, garapena eta hedapena ikusarazteko agertoki bat sortzea eta berreraikitzea izan du helburu, kalitate eta bikaintasunerako baldintza eta irizpideekin: hitz batean esateko, artisautzaren balorazio soziala eta sona bultzatzea.

Hori lortzeko, kontzeptua aldatzea oinarri-oinarrizkoa da, artisau produktuak gaurkotasunarekin, berrikuntzarekin edo-eta diseinuarekin lotuz, eta kalitate-prezio garaiko luxuzko artikuluak bezala aurkeztuz.

Beste aldetik, artisautzak jasangarritasunarekin eta inguruarekin duen engaiamendua oso garbia da, bai bere produkzio-prozesuetan hala erabiltzen diren mate-

rialetan, eta hori osagai bat gehiago da bere balioa handitzeko.

Beraz eta haurretik aipatu den gisan, edizio hau standen eta gunearen irudi estetiko berri bat aurkezten saiatu da. Horrek, Diseinuaren III. Lehiaketaren erakusketarekin batera, tailer partaideen nolabaiteko gutxitze bat ekarri du, kantitateari baino kalitateari lehentasuna emanaz.

Labur bilduz, 39. Azokaren xedea izan da 38 urteetako ibilbide luzean lortutako sonari eustea.

ARTISAUEN HAUTAKETA-PROZESUA

Azokan parte hartuko duten artisauen aukeraketa arreta handiz egiten den gaia da, zentzu horretan bat eginaz beti bultzatzen izan diren bikaintasunaren balio eta irizpideekin, eta deialdiko Parte-hartzeko Baldintzetan islatzen direnak urtero.

Irizpide horiek alderdi orokor hauek hartzen dituzte kontuan: produktuen kalitatea eta berrikuntza, lanbideen aniztasuna, parte hartzen duten tailerren urteko txandatzea eta berrien presentzia. Era berean, ahalegin

Errenteriako
"Ereintza"
Euskal Herriko
39. Artisautza
Azoka 2017ko
urriaren 20ean,
21ean eta 22an
ospatu zen
Merkatuzar
Kultur Guneko
"Jose Luis
Caso" aretoan.



handia egiten da azokari kalitatezko plusa emango dioten tailer bereziak ere erakartzeko

Stand zenbaki kopuru mugatua dugunez, jasotako eskaera andana artean ugari bertan behera utzi behar izaten dira. Batzuek lanbideen errepikapena dela eta; besteek produktuen kalitate urria dutelako.

Lehen esan dugun bezala, 35 artisau-lantegik parte hartu zuten 39. edizioan. Horietatik 16 lehenbiziko aldiz Errenteriako Azokara etorriak; beraz, parte-hartzaile guztien % 45 berriak izan dira. Nabarmentzekoa da ere 2016. urteko edizioan izandako 13 tailer bakarrik errepiketu zutela, eta horrek esan nahi du berrikuntza eta txandakatze aipagarria izan zela bai artisauen artean hala nola langintzetan.

TAILERRAK ETA MATERIALAK

Hona hemen parte hartu zuten lantegien jatorria: Gipuzkoa (19), Bizkaia (3), Nafarroa (2), Araba (3), Iparralde (1), Asturias eta Cantabria (4). Aurkeztutako materialei dagokionez hauek izan ziren erabilitakoak
Zura (4): Zur-tailla eta Sareta (1); Zurezko tresnak (1); Jostailuak (2).

Burdina eta metala(5): Forjaketa artistikoa (1) Bitxigintza (4).

Beira (3): Sortze-beiragintza (1); Grabatua (1); Beira eta Dekorazioa (1).

Buztina eta harria (4): Zeramika (2); Zeramika+Bitxigintza (1); Zeramika + Ilustrazioa (1)

Ehuna (5): Ehun-Diseinua (1); Artisautza zetan (1); Ehun-osagarriak (1); Kapelak eta Burukoak (2)

Larrua (3): Oinetakoak (1); Larrugintza (2).

Papera eta kartoia (5): Grabatua eta Grafika lanak (1); Papera eta Ehuna (1); Koadernaketa (1); Papera eta Grafika-lanak (1); Papergintza (1).

Bestelakoak (4): Xaboiak eta Kosmetika (1); Gitarren Luthierra (1); Txotongiloak (1); Artiola-design Erakusketa (1).

BERRIKUNTZAK

Azokaren edizio honetan nabarmendu beharreko lehen berrikuntza standen eta gunearen irudi estetiko berri batekoa izan da. Horien adibide bezala ondorengo eredu hau aipatuko dugu.

ARTIOLA-DESIGN "SAN SEBASTIÁN GASTRONOMIKA 2017"-an.

Artisautzaren esparruan merkaturatze bide berriak aurkitzea erronka zaila denez, horri aurre egiteak arlo ezberdinak jorratu behar izatea eskatzen ditu. Hildo honetan, Artiolak lan-dinamika iraunkor bat mantendu du artisautza-sektorearen bisibilitatea eta konpetentzia gehitzeko, eguneratzeko eta indartzeko, merkaturatze bide ezberdinen miaketan bitartez.

Zentzu honetan, Artiolak "San Sebastián Gastronomika 2017"-an bere parte-hartzea bultzatzeko izan dituen arrazoiak hauek izan dira:

- Artisautzaren presentzia eta ikusgaitasuna ziurtatzea.
- Artisautzaren identitate profesionala indartzea egun arakatu gabe dauden sektore profesionaletan.
- Gastronomiarekin zerikusi duten merkaturatze bide berriak irekitzea.

Helburu hauek lortu ahal izateko eta lehen aipatu den bezala, artisautza bikaintasunarekin, gaurkotasunarekin eta diseinuarekin lotzea ezinbestekoa da, dudarik gabe horrek ekarriko bait dio gizartean behar duen prestijioa eta balorapena. Era berean, artisau tailerrak sektore profesional ezberdinekin harremanetan jartzea guztiz garrantzizkoa da, bere produktuak gizarteratu eta kanpo-sustapen bat lortu nahi bada behintzat.

Helburu hauek jomuga harturik, artisautzaren bikaintasunaren eredu diren Euskal Herriko bederlatzi



Artiola-Design
 "San Sebastián
 Gastronomika
 2017"-an.
 Argazkia: foto Poly.

Lehen esan dugun bezala, 35 artisauintegirik parte hartu zuten 39. edizioan. Horietatik 16 lehenbiziko aldiz Errenteriako Azokara etorriak; beraz, parte-hartzaile guztien % 45 berriak izan dira.

artisauintegirik lankidetzan izan dugu. Aukeraketa honen arrazoi garrantzitsuenak, artisauintegirik irudia ohiko kanal-banaketatik bereiztea izan da (hau da azoka tradizionalak eta kaleko salmenta), beren produktuei beste alternatiba bat emanaz antolatuta daitezkeen ezohiko ekitaldietara zabalduz.

"Artiola Gastronomic Design" izenpean, jarduera eta lanbide ezberdinetako bederatzi tailer hauek, ostalaritza eta sukaldaritzarekin zerikusi duten pieza bana aurkeztu zuten, eta ekitaldi horretarako elkarrekin "ad hoc" antolatutako stand batean lan hauek erakutsi zituzten. Hauek dira artisauintegirik eta beren lanen deskribapena.

- Mar Cadarso eta Iñaki Unanue: larruzko eta burnizko botilategiak.
- Igor Obeso: beira puztuaren bidez egindako lanpara.
- Papiro Book (Marian Cancio eta Helena Aberasturi elkarlanean): menu-karta eta erregistroko liburua.
- Sonia Sanz: paper jangarriaren txafilen bidez egindako pieza.
- José Pablo Arriaga eta Joseba Lekuona: diseinu berritzaileko platerak.
- Idoia Grijalbo: tornuan egindako basoak eta teontzia.
- Jabonería de la Almendra tailerra: Xaboi eta kosmetikoen multzoa.

NABARMENTZEKO LANTEGIAK

Azpimarratu behar da ere, edizio honetako tailerren artean badirela nazioko eta nazioarteko lehiaketetan hainbat sari jaso dituztenak edo bere produktuak atzerrian saltzen dituztenak. Azokara lehen aldiz etorritakoen artean hauek azpimarratu nahi ditugu adibide gisa:

ZERAMIX: Idoia Grijalbo artisauintegirik obrak zeramika klasikoaren eta eskandinabiarraren soiltasunaren eragina du, aldi berean bere azken urteetako lanaren lerroa markatu duen japoniar tradiziozko zeramika arreta handiz hartuz ere. Buztingintza tradizionalarekin eta beste oinarri, konzeptu eta sorkuntzako prozesu berrien bitartez "ZERAMIX" zigilua moldatzen joan da, diziplina-anitzekoago, polifazetikoago eta eklektikoagoko eran egunero lan eginez. Eskuz egindako pieza bakarren sorkuntzari lehentasuna ematen dio, teknika zaharrenean eta oinarritzko materia nobleak duten boterea erabiliz: lurra, ura eta sua. Sukaldaritzaren eremuan Pedro Subijanaren Akelarre jatetxearentzat diseinatu eta sortu ditu plater eta txarroen bilduma bat. Baita ere ontziteri eta dekoraziozko objektuak sortu zituen Copenhagueko Goods dendarentzat, halaber Martin Santos Osakidetza Sariaren diseinua eta gauzatzea beste lanen artean.

KRIS MERAKI: Cristina García-Kris Merakik, Artea, Artisauintegirik eta Diseinua ikasi zituen Irlandako Grennan Mill Craft School deritzan ikastetxean. 2000. urtean paperaren zuntzarekin hasten da lanean, bereziki artisauintegirik paper birziklatua eginaz eta baita ere, japoniar papera egiteko, landare zuntzekin lanean. Ustegabeko une batean feltroaren zuntza eta artilearekin topo egiten du eta ondorioz material hauekin lanean hasten da. Izan ere material hauek bere sena adierazteko modu zabalago bat eskaintzen bai diote. Artista eta ehun-diseinatzailerak gisa, artile puruaren teknika berritzaileak

lantzen du nagusiki, zeta, paper eta zuntz natural ezberdinekin batera. Bere lanaren abiapuntua teknika ezberdinen konbinazioa delarik, bere obra eskultorikoa eta konzeptuala da batezere, nahiz eta jantzi praktikoa ere egiten duen. Ehun-piezek espazioa nola betetzen duten ikertzea du gustuko, gure zentzuak nola pizten dituzten ikustea. Ingurumena sakonki errespetatzen du, eta hau bere sormen-lanen bitartez transmititzen saiatzen da.

XABINA LARRALDE: Lapurdiko Bastida herrian tailerra duen artisaun gazte hau, Le Mans hiriko «*Institut Technologique Européen des Métiers de la musique*» eskolan gitarreko luthier bezala graduatzen da. Bertan Antonio Arroyo luthier-maisua ezagutzen du. 2007. urtean bere tailerra irekitzen du eta soka-tresnen berriztapenean berezitzen da (gitarra, bajo, charango, saz, mandolina, ukulele), eta hauen egintzan luthier bezala duen pasioarekin lana egiten du Xabinak. Antigoaleko musika-tresnen berriztapena bere lan berezietako bat da eta lan honetan gaur egun ahaztuak dauden teknikak eta ezagutzak erabiltzen ditu. Bere gitarra modelo propioak artisaun-eran egiten ditu, modu eta teknika zehatz eta zorrotza erabiliz. Bere produktuak, soilak eta dotoreak itxuretan, kalitate handikoak suertatzen dira, aukeratzen duen zura dela medio eta lanean jartzen duen sekulako arretari esker.

WOODAPPETIT: Naturaren sorkuntzekin eta zura bakoitzaren usai eta textura ezberdinekin grinatua, artisaun honen lana berezitu da “zura baino gehiago arima” eman nahi dien eguneroko bizitzan erabiltzen diren objetuen diseinu eta egintzan. Bere lantegitik sukaldean erabiltzen diren tresna guzti horiek ateratzen dira: ganibetak, katiluak, bitsaderak, sukaldeko oholak,

almaizak, platerak, pintxo-heltzekoak, xaboi-ontziak, koilarak, sardexkak, eta abar, denak diseinu funtzionala eta garaikide batekin eginak. Produktu guztiak argizari naturalekin tratatzen dira, elikagaien erabilerako egokituak daude.

ZIGOR ANGUIANO: Koadernaketaren langintza oso ezaguna zuen senitarte batean jaioa, Zigorrek bere ofizioa ikasi zuen hamar urtez Gasteizko Arte eta Langintzen Eskolan aritu ondoren, bere aurrekoek (aitona Modesto eta osaba Jose Mari koadernatzaileak) liburua ongi koadernatuari erakutsitako maitasuna bultzatuta.

2011. urtean Espainia mailan koadernaketaren esparruan ematen den sari garrantzitsuena jasotzen du Ana Maria Matute idazlearen “Paraíso inhabitado” liburuaren koadernaketa batekin. 2015. urtean, Juan Goytisoloren “Señas de Identidad” liburuarentzat egindako lanarengatik, bigarren aldiz hirugarrena gelditzen da Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak ematen duen izen handiko sariketa berean. “Zigor Koadernaketa” da Gasteizko Alde Zaharrean kokatutako bere estudio-tailer berria.

KIKIS ÁLAMO: Izen honen azpian artisaun eta artista handi bat aurkitzen da. Bere senarra den José Ramón Alejandrerekin Hondarribiako Paperki tailerraren sortzailea da baita ere. Artisaun-paperagintzan dihardun lantegi honek, hainbat teknika eta tresnak garatu ditu paper mota ezberdinak lortzera heldu arte, sortaldeko hala sartaldeko sistemak erabiliz. Lantegi honetatik euskal artista gorenak bere obrak sortzeko erabili duten paper berezi bat atera da. Baina Kikisen lan





“Euskal Artisautza Gaurkotuz”
III. Diseinu Lehiaketa.
Argazkia: foto Poly.

eremuak arlo hau soberan gainditzen du, beste sorkuntzako eta artistiko eremuetara zabalduz: argitalpen mugatutako grafiko lanak; liburu-objetu bakarrak eta jatorrizkoak; moldaketa edo uzkurduraren bidez egindako eskulturak; ikusgai jarri behar den gaiarentzat propio diseinatutako paperekin sortutako instalazioak. Bitxigintza eta osagarriak ere bere jardueraren barruan sartzen dira; esate baterako Gaudí pasarelarentzat egindako diseinu eksklusiboak.

IDOIA LIZEAGA: Astigarragan jaiotako bitxigile gazte honi proiektio luzea iragartzen diogu. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasi zituen grabatuan berezitu eta Kataluniako “Escuela de Arte Floral” deritzan eskolan ikasketak osatu eta bertan irakasle bezala lan egin. Katalunian bertan bitxigintzaren ikasketak egiten ditu Escola Massanan. Euskal Herrira itzultzen da bitxien diseinua eta egintzan jarduteko asmoarekin. Bitxigintza artistikoan Goi-graduduna izanik, teknika berriak ikertzen ditu bere lanak naturan dutela iturri eta oinarri. Egun, Errenteriako Torrekuan kokatutako “Habian! Fabrika Kreatiboa” programa barruan

lana egiten du, proiektu honek aukera ezin hobea eskaintzen bai die profesional bidea hartu nahi duten artisauei. Berriki, Balentziaga Museoan bere bitxien bilduma bat aurkezteko aukeratua izan da, Isabel Zapardiez bezalako enpresa ezagunekin batera.

ERAKUSKETA:

“EUSKAL ARTISAUTZA GAURKOTUZ” III. DISEINU LEHIAKETA

XXI. mendeko gizartean artisautza barnertzeko asmoz, ARTIOLA Artisautzaren Guneak “EUSKAL ARTISAUTZA GAURKOTUZ” III. Lehiaketa antolatu zuen, artisautzako ogibideetan oinarritutako elementuak etorkizuneko gizartearen egunerokotasunean erabilgarri bilakatzeko bide gisa. Halaber, abangoardiako sortzaileek artisautzaren etorkizunerako bide berriak ireki dezaten eta lanbide tradizionalak gaurkotuz, euskal kulturari ekarpen berria eman.

Lehiaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren finantzaketaren bidez egin da eta Errenteriako Udalaren laguntza ere jaso du. Lehiaketara aurkeztutako lanak 48 izan dira. Euskal Herritik nola Estatutik jasotako lan hauek artisautzaren esparru ezberdinak hartzen dituzte: larrua, zeramika, forjaketa, ehuna, zura, bitxigintza, papera, beira eta harria.

Lehiaketaren Oinarrietan haintzat hartzeko aipatzen diren alderdiak zehatz eta sakon aztertu ondoren, epaimahiak erabaki zuen lehenengo saria ematea Mar Cadarso gazteitar artisauak, aurkeztutako "ORIENTE" deritzan larruzko poltsari. Artisautza arloan eskarmentu zabaleko emakume honek, azken urteetan María Clé etxearentzat hainbat larru-osagarriak diseinatu eta egin ditu. Lan hauek Samsung- Ego de Cibeles-Madrid-Fashion-Week azokan aurkeztu dira, 2015 urteko Mercedes-Benz-Fashion-Talent saria jasoaz.

Epaimahiak beste bi lanen aipamen berezia egin nahi izan zituen aldi berean:

Bat, "KUTXARA-PLATERA" deritzangres-portzelanikoan egindako platerarena, Pedro Galdón industri-disenatzaile irundarrak aurkeztutakoa. Bere diseinua usadiozko euskal buztigintzan oinarritua dago eta eztaingaren urre-koloreak konposizio garaikideengatik aldatuz, antzinan erabilitako esmaltearen tonua berreskuratzea lortuz.

Bigarren aipamen berezia Elgoibarko Amalur Urresti bitxigilearen "LAIA" lanarentzat izan zen. Bitxia, zilarrezko ile-orratz zirkular bat da, "a la cera perdida" deritzan prozeduraren bitartez egin. Egilearen hitzetan, "zirkulua betikotasuna adierazten du, amaierarik ez duena: lurra. Laiak, gure arbasoek ereintza aurretik lurra lantzeko erabiltzen zuten tresna, betikotasunaren zikloa berriro hastea laguntzen zien tresna".

Bukatzeko esan daiteke aurkeztutako lanen kopurua eta izan duen harrera eta interesa lehiaketaren helburuak bete dituztela. Bestetik hazpimarratzekoa da ere, parte-hartzaileen erantzuna kalitatearen arauarekin eta bikaintasuna eta lanbidearen garapenaren helburuekin bat etorri direla.

Beraz, lehiaketara bidalitako 48 lanen tartean, epaimahiak aukeratutako 22 lan onenak aurkeztu ziren Garazi Ansak, Artearen historiagileak, zuzendutako erakusketa batean.

AZOKAKO SARIAK

Estetikan hala nola esperimenezkoan hobekuntzak sustatzeko asmoarekin, Errenteriako Eskulangintza Azokak bi sari banatzeko ohitura du: Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria eta Erakusmahai Onenaren Saria.

Bi sariak 350 eurokoak dira, gehi diploma bat. Epaimahaia berriz, artisautzarekin eta diseinuarekin zerikusi duten hainbat arlotako profesionalek osatzen dute.

Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria: Azokan pieza onena aurkeztu duenari ematen zaio saria hau, parametro hauek kontuan hartuta:

- Ikerketa eta esperimenezkoa, bai materialetan, bai ekoizpen-tekniketan.
- Diseinua eta estiloen berritasuna. Erabilgarritasuna.
- Kalitate artistikoa.
- Produktuaren lanketa eta akaberaren fintasuna.

Edizio honetako sari hau DANIEL LIZARRALDE eta IDOIA LIZEAGA artisuen artean "ex aequo" banatu zen.

Daniel, zura lantzea dedikatzen den ZURJOLE tailerraren zuzendaria da eta zuran tailatutako pieza txundigarri bat aurkeztu zuen. Epaimahaiaren hitzetan "bere lanean eta behar den denbora kontuan hartu gabe artisauaren kalitatea goraino eramateagatik".

Idoiari berriz "teknika tradizionalak eta garaikideak ezin hobeto integratzeagatik". Bitxigintza du lanbide eta Ikasketa-amaierako egindako "Motrices" deritzan proiektuaren kapsula antzeko pieza berezi bat aurkeztu zuen.

Erakusmahai Onenaren Saria: Dekoraturako stand onena aurkeztu duenari ematen zaio sari hau eta irabazlea Cristina García "KRIS MERAKI" standaren artisaua suertatu zen. Saria emateko orduan, aurkezpena eta kalitate estetikoak hartzen dira kontuan, eta kasu honetan Epaimahaiak "bere harmonia, txukuntasuna, detaileen zainketa, erritmoa eta espazioaren



Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria.
Idoia Lizeaga.



Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria.
Daniel Lizarralde.



Erakusmahai Onenaren Saria.
Cristina García "KRIS MERAKI".
Argazkiak: foto Poly.

optimizazioa atontzeko orduan" azpimarratu zituen saria emateko arrazoiak bezala.

INAUGURAZIOA

Inaugurazio-ekitaldia urriaren 20ean izan zen, ostirala, goizeko 11:30etan, bertan hainbat erakundeko ordezkari hauek bildu zirelarik:

- Julen Mendoza, Errenteriako Alkatea.
- Antton Tomasena, Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendari Orokorra.
- Errenteriako Udalaren zinegotziak.
- Jone Idiazabal, Artiola Artisautzaren Gunearen Lehendakaria.

Horrez gain, Azokarekin edo euskal kulturarekin zerikusi duten hainbat gonbidatuak ere bertaratu zirelarik.

Erakundeko ordezkarien agurren ondoren eta Verdini Dantza Taldeko bikote baten dantza-saio labur bat ikusi eta gero, Azokaren 39. Edizioa ofizialki irekia geratu zen. Jarraian "'EUSKAL ARTISAUTZA GAURKOTUZ" III. Lehiaketaren sarien banaketari ekin zitzaion, irabazlearen eta bi aipamen bereziak lortutako egileak bertan zirelarik.

AZKEN HITZA

Honako txosten honek, Errenterian ospatutako 39. Eskulangintza Azoka edizioaren balantze moduko bat izan nahi du. Nahiz eta azoken modeloa eta beren etorkizuna inflexio puntuan eta hausnarketa momentuan egon, orain arte berrikuntza eta kalitatea bilatzen duen Azoka izan da, eta horrek plus berezi bat eman dio azoken artean, ez Gipuzkoan bakarrik Euskal Herria osoan baizik.

Beraz ospatu dugun 39. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka eta bera egitea ahalbidetu duten guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen. Lehenik, parte hartu duten artisau guztiei, bereziki kanpotik etorritakoei. Eskerrak, baita ere, urtez urte azokara hurbiltzen diren bisitariei, ardura eskaini dizkiguten komunikabideei, gure laguntzaile bolondresei, eta, nola ez, laguntza eta diru-babesa ematen diguten erakundeei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Errenteriako Udalari eta Kutxa Fundazioari. Doakizuela berriro ere gure eskerrik beroena.